



Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa Bizkaian
Evaluación de los Ecosistemas
del Milenio en Bizkaia

Gernikako Arbola, munduaren zerbitzura

Egilea: Xabier Arana Eiguren

Gernikako Arbola da Euskal Herriaren ikur unibertsalena. Gernika-Lumon dago, Bizkaian, eta Euskal Herriko eta beste kultura batzuetako tradizio baten adierazgarri da; hau da, leku sakratuetan edo espiritualetan, edo erakunde kutsa duten lekuetan zuhaitz bat jartzeko tradizioaren adierazgarri. Horren harira, ohikoa da ehun urtetik gorako haritzak edo arteak ikustea elizen, ermiten edo garrantzi berezia duten lekuen ondoan; hala nola, Gernikako Batzarretxean (hantxe egiten dira Gernikako Batzar Nagusiak). Jatorriz, Bizkaiko Jaurerriko elizateetako ordezkariak batzarrak egiten zituzten elizen edo ermiten ondoan eta batzar horien lekuko zen zuhaitz horren itzalpean. Gero, tokian tokiko batzar horietako ordezkariak Bizkaiko Batzar Nagusietara (hots, probintziako legebiltzarrera) deitzen zituzten. Hasieran, Antiguako Santa Maria ermitaren ondoan biltzen ziren, eta, 1826tik aurrera, gaur egungo Batzarretxearen eraikinean. Aparteko eraikin horrek bitxitasun bat du: eliza eta legebiltzarra da aldi berean. Izan ere, tradizioari jarraituz, batzarra egin aurretik elizkizuna egiten zuten. Gaur egun, ekitaldi politikoak eraikinaren barruko aretoan egiten badira ere, Lehendakariak Gernikako Arbolaren itzalpean egiten du bere karguaren zina, eta harrera-ekitaldiak eta akordio instituzionalen ekitaldi publikoak ere hantxe egiten dira. Haritz hori (*Quercus robur*) da mendeetan zehar leku eta pribilegio hori bete duen leinuaren oinordekoa. Haritz Zaharrak 300 urte inguru ditu; haren ondorengoa 1860an landatu zuten, eta gaur egun Batzarretxearen ondoan dagoen haritza 2005ean.

Gernikako Arbola euskaldunen askatasunen eta eskubideen adierazgarri da, eta oso errotuta dago gure kulturen. Horren erakusgarri, Jose Maria Iparragirrek Gernikako Arbola kanta konposatu zuen 1853an.

Gernikako Arbolak indar sinboliko handia du. Hainbestearino, Espainiako gerra zibilean, 1937ko apirilaren 26an, Gernika bonbardatu zutenean, indar faxistak ez baitziren ausartu esparru instituzional hori suntsitzen. Dena den, ezbairik gabe bonbardatu eta su eman zioten herriari, eta ehunka pertsona hil eta herria suntsitu zuten. Pablo Picassok "Gernika" margolanaren bidez hilezkortu zuen biztanleria zibilaren aurka bereizkuntzarik gabe egindako lehenengo bonbardaketa hori.

Euskal konstituzioa esaten diogunari, hots, euskal egitura instituzionalaren eskumenak eta antolaketa jasotzen dituen legegari, gaur egun, Gernikako Estatutua deritzogu, eta Gernikako Arbolari lotuta dago, desegin ezin den modu batean.

Edonola ere, balio historikoaz eta politikoaz harago, Gernikako Arbola euskaldunen batasunaren ikurra da; Bizkaiko Jaurerriko gainerako zuhaitz sakratuak ere horixe dira. Horregatik, haren kimuak Euskal Herriko hainbat eta hainbat lekutan daude —udaletxeen eta abarren ondoan—, bai eta mundu osoko euskal etxeetan ere. Euskal diasporako kideek eta XIX. eta XX. mendeetako hurrenez hurrengo gerren eta gatazka armatuen ondorioz erbesteratu zirenek sortu zituzten zentro horiek. Amerikara, Asiara edo Australiara joan eta euskal etxe bat bisitatuz gero, Gernikako Arbolaren espiritua sentitu ahal izango duzu, kanpoko esparruan edo barruko patioan. Gernikako Arbola Euskal Herriaren bokazio unibertsalaren zerbitzura dago.

Informazio gehiago:

http://www.jggbizkaia.net/home/casa_juntas/arbol_gernika.asp

http://es.wikipedia.org/wiki/%C3%81rbol_de_Guernica